

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 2/2023

ERABAKIA, (...) (...)K EGINDAKO KONTSULTARENA.

1.- (...) (...)k mezu bat bidali zuen Etika Publikorako Batzordeko (EPB) postontzi elektronikora. Bertan, kontsulta bat egiten dio batzorde honi, “(...)” kontratuaren adjudikazioari buruz.

2.- Mezu horretan dio Eusko Jaurlaritzak % 33,3ko partaidetza duela (...) sozietatean, eta (...)rena dela kapitalaren gainerakoa (% 66,6). Eusko Jaurlaritzak, partaidetza hori duenez sozietatean, bi ordezkari ditu administrazio-kontseiluan: bata mezua bidali duena, (...), eta bestea (...).

3.- (...) sozietateak lizitazio publikoaren deialdia egin du “(...)” helburu duen kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko, eta sozietatearen administrazio-kontseilua da prozedura horretako kontratazio-organoa.

4.- Etika Publikorako Batzordeari bidalitako kontsultan adierazi du jakin duela enpresa lizitatzaileren artean puntu gehien jaso duenak loturaren bat duela (...)ko langile batekin; izan ere, langileetako batek partaidetza txiki bat du enpresa horretan, eta ahaldun gisa agertzen da.

5.- Hori dela eta, Etika Publikorako Batzordeari eskatu dio eman dezala bere iritzia (...)ko kontseiluan duen partaidetzari dagokionez eta informazio horien berri izan ondoren bozkatu dezakeenari dagokionez, bai eta ea interes-gatazkaren bat sor daitekeen ere.

6.- Horiek horrela, EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean EJK) 16.4 apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatutako kodeak zehaztuta dauka zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkieken Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jardura publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publikoak dagokion betebeharrak etikoak eta eginkizun sozial bat betetzea, saiatzeko baita gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa mantentzen eta bizitza politikoan egiten duen jardunaren gardentasuna zaintzen.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik zerbitzari publikoaren eredu adieraztea edo horri buruzko informazioa ematea; izan ere, zerbitzari publikoa zaindu eta bermatu nahi da. Horrez gain, testu arauemaile bat ere bada, lege-mailakoa, karguari dagokion funtzio publikoan aritzean bete beharreko eginkizunak ezartzen baititu.

Ildo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (kapitulu horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketarako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta erudugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezkak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Kontsulta egin duen pertsonak galdetu du ea zein den EPB honen iritzia: ea interes-gatazkarik egon daitekeen, eta ea parte har dezakeen eta zer bozkatuko duen kontratuaren adjudikazio-prozesuan, (...) den aldetik kide duen administrazio-kontseilua baita kontratu horretako kontratazio-organoa. Izan ere, jakin du (...)ko langile batek partaidetza duela puntu gehien eskuratu duen enpresan eta, gainera, enpresa horretako ahalduna dela.

EPB honi bidalitako jakinarazpenean adierazitakoaren arabera, (...), (...) emakidaduna dela (...) kudeatu eta ustiatzeko, lizitazio publikoaren deialdia egin du, prozedura irekiaren bidez, "(...)" helburu duen kontratua adjudikatzeko.

Eusko Jaurlaritzak % 33ko partaidetza du sozietate horretan, eta (...)k % 66koa.

Eusko Jaurlaritzak, partaidetza hori duenez sozietatean, bi ordezkari ditu sozietatearen administrazio-kontseiluan: bata interesduna, (...), eta bestea (...). Bada, aipatutako administrazio-kontseilua da sozietatearen kontratazio-organoa.

2.- Komeni da adieraztea, batzorde honen iritzia jakiteko azaldu den gela aztertzeari ekin aurretik, Etika eta Jokabide Kodeak interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk aurreikusten dituen arren (horrela behar du nahitaez), kargu publikodunen jardunetan gai horrekin lotutako dilema etikoek duten garrantzia kontuan hartuta, arlo horretan indarrean dagoen

berariazko araudia –eta, zehazkiago, kargua hartu aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuk egiteari dagokiona– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak berariaz erregulatzen dituen arauan; horretan, diziplina- eta zigor-erregimen bat ezartzen da, legezkotasun-printzipioari jarraituz lege-mailako testu batean erregulatzen dena.

3.- Beraz, ez dagokio EPB honi zehaztea ea interesdunak, (...) den aldetik, aipatutako lizitazio-prozesuan parte hartuz gero, urratu egin dezakeen goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen eremuan eta kontratazio publikoaren alorrean indarrean den ordenamendu juridikoa. Aldiz, EPB honen zeregina da interesdunari adieraztea zer prozedurari jarraitu behar dion prozedura honetan, kargu publikodun gisa duen portaera bat etor dadin Etika eta Jokabide Kodearen oinarri diren balioekin, printzipioekin, jokabideekin eta portaerekin.

Hain zuzen ere, Etika Publikorako Batzorde honek hasiera-hasieratik mugatu nahi izan du bere lana etikaren eremura, eta, bereziki, Etika eta Jokabide Kodea beren borondatez atxikitzea erabaki duten kargu publikodunek eta parekatuek kodea betetzen ote duten jakiteko irizpenak ematera. Ordenamendu juridikoa betetzea ez da inola ere hutsala, nolana ere, baina ez da batzorde honen eginkizunetako bat administrazio-jarduera baten legezkotasunaren inguruko iritziak ematea edo, hala badagokio, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoaz aritzea.

4.- Hortaz, EPB honek interesdunari jakinaraziko dio soilik zer prozedura jarraitu behar duen haren portaera bat etor dadin EJKren oinarri diren balioekin, printzipioekin, jokabideekin eta portaerekin, eta ez ditzan horiek urratu.

5.- Beraz, EPB honen jarduna zertara mugatzen den zehaztuta, egin den kontsultan EPBren iritzia eskatzen da honi buruz: ea interes-gatazkarik egon daitekeen eta ea zer hartu behar duen kontuan kontratuaren lizitazio publikoaren deialdia egin eta kontratazio-organo gisa jarduten duen sozietateko administrazio-kontseiluko kidea den aldetik.

6.- Hori horrela, EJK-k, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak sistematikoki nabarmentzen dituenak, honako hau ezartzen du 5.2.1. apartatuan: *“erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodunek eta parekatuek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Printzipio horiek, bereziki, kontratazio-prozeduretan, dirulaguntzak ebatztea, arauen aplikazioan eta bestelako finantza-baliabideen erabileran baliatuko dira”*.

Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.4 apartatuak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek *“beren funtzioak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikieneko izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunen mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa dela pentsatzera eraman lezakeen susmo edo zalantza oro”*.

7.- EJKren 6. apartatuak, kargu publikodun eta parekatuen osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak biltzen dituenak, ezartzen du, halaber, kargu publikodun eta parekatuek jokabide eta portaera hauek izan beharko dituztela, besteak beste, integritate-balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

• “Ez dute jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eraman lezakeen susmorik sor dezakeen ezer.

• Inoiz ez dituzte erabiliko postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean, edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko, ez eta edozein pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak lortzeko ere, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan”.

8.- Bestalde, kodearen 11. apartatuak, zeinak kargu publikodunen eta parekatuen onestasanari, desinteres subjektiboari eta haien interes-gatazkek eragozteari buruzko jokabideak eta portaerak zehazten dituen, bi multzotan sailkatzen ditu jokabideok: interes-gatazkek sor ditzaketenak eta opariek eta izan daitezkeen mozkinekin lotutakoak.

Apartatu horretan, honela definitzen da interes-gatazka: *“Kargudun publikoek eta parekatuek beren postu publikoaren interesek eta interes pribatuek, senideenek, edo hirugarren pertsonen partekatutako interesek bat egiten duten gaitan erabakiak hartzea”*. Eta interes publikoen eta interesdunaren interesek talka egiten duten edo egin dezaketen egoeretan kargu publikodunek eta parekatuek zer jokabide izan behar duten ezartzen da –betiere, legeak ezar dezakeena alde batera utzi gabe, jakina–.

Azken finean, prebentziozko edo kautelazko neurriak dira gehienetan, interes-gatazkek saihestea helburu dutenak, jakina. Baina, horrez gainera, neurri horien xedea da goi-kargudun eta parekatuen jarduketan interes-gatazka pizteko aukeraren inguruan sor litezkeen kezka edo susmo guztiak errotik eraztea.

Horiek irakurrita erraz antzematen da ez dutela soilik EJK-k ezarritako onestasunaren eta desinteres subjektiboaren estandarrari begira sor litezkeen desbideratzeak saihesteko asmoa, eta, horrez gain, desbideratze horiek izate hutsaren inguruko zalantza oro ere uxarazi nahi dela.

Argi eta garbi badaezpadazkoak diren jokabide horien artean daude, besteak beste, honako hauek:

- Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-gatazka sortzea.
- Ez dute inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Administrazio Publikoaren funtzionamenduaren objektibotasuna.
- Beren betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitezkeen kargu publikodun eta parekatuek berehala eman beharko diote horren berri Etika Publikorako Batzordeari eta, idatziz ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute edo bestela, gutxienez, une horretan edo etorkizunean interes-gatazka bat egon daitekeela pentsatzera daramatzen susmoa dutela jakinarazteko betebeharra dute. Halaxe egin du interesdunak.

9.- Zuhurtzia are beharrezkoagoa da 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen onartu ondoren. 10. artikuluan, parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra agintzen die kargu publikodunei *“beren interesak, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak edo laugarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatzen dituztenak agertzen edo bultzatzen diren jarduera, erabaki edo ekimenetan”* edo *“zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaietan edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organoetan kargu publikodun gisa izan badira bai kargu publikodunak berak bai ezkontide edo izatezko bikotekideak edo bigarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak edo berekin interes partekatuak dituzten hirugarren pertsonak”*.

10.- Horiek horrela, EJK-k zehaztutako portaera etikoaren atalaseak segurutzat jotzen ditu Eusko Jaurlaritzaren goi-mailako kargudunek eta parekatuek legeak betetzea. Eta oinarritzko plataforma hori, herritar guztiek dutena, ardatz hartuta, hainbat jarrera eta jokabide zehazten ditu, legez daudenak baino zorrotzagoak direnak. Gehigarri etiko bat da hori, juridikoki eskatzerik ez dagoena –legean berariaz jasota ez baitago–, baina bai ageri dela Etika Kodearekin bat egiten

duten pertsonen onartutako konpromiso politikoaren barruan; hortaz, EPB honek hori betetzen den aztertu eta ebaluatu ahal du, bai eta, hala badagokio, horren gaineko irizpena eman ere.

11. Aurreko apartatuetan adierazi ditugun arrazoiak direla eta, interes-gatazka bat edo gatazka hori egon daitekeela ikusten bada, kontsulta bat egin behar zaio EPB honi, kautelazko neurri gisa (halaxe egin du interesdunak kontsulta helarazi duenean), eta, hala badagokio, kargu publikodunek eta parekatuek, erakundearen prestigioa babeste aldera, uko egingo diote erabakiak hartzeko edozein prozesutan parte hartzeari, baldin eta interes-gatazka bat gertatzeko susmorik txikiena badago.

Horrenbestez, kontratazio-espedituearen izapidetzea akats gabea izan arren eta benetako interes-gatazkarik antzeman ez den arren, aurrez aipatutako apartatuen bidez EJK-k lortu nahi duena da guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren mesederako dela nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeela pentsaraz dezakeen edozein susmo edo zalantza, eta saihestea pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dela adieraz dezakeen edozein susmo pitz dezakeen ezer.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

BAKARRA.- Partzialtasun- edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dela adieraz dezakeen edozein susmo saihestearren, kontsulta egin duenari proposatzen zaio ez dezala parte hartu erabaki honetan aipatu den administrazio-kontratua adjudikatzeko prozeduran.

Olatz Garamendi Landa

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 38an.

